

AZKEN MAMU GORRI ZORIONTSUA

Karlos Cid Abasolo

Traduzco a una lengua extraña. Sus verbos, la estructura de sus oraciones de relativo, las palabras con que designa las cosas antiguas –los ríos, las plantas, los pájaros– no tienen hermanas en ningún otro lugar de la Tierra. Casa se dice *etxe*; abeja *erle*; muerte *heriotza*. El sol de los largos inviernos, *eguzki* o *eki*; el sol de las suaves y lluviosas primaveras, también *eguzki* o *eki*, como es natural. Es una lengua extraña, pero no tanto.

Ze bitxia: aurreko hitzak idazten ari naizen bitartean, irudipena dut beste inon irakurri ditudala. Nolanahi ere, eta intertestualitate saihestezinean erortzeko arriskua gorabehera, kontatu nahi dudanaren abiapuntu gisa balio didate.

Idazle batek erabaki dezake hizkuntza hegemoniko batean idaztea edo, bestela, hizkuntza ez-hegemoniko batean. Itzultzaile batek erabaki dezake sorburu-hizkuntza hegemoniko batetik itzultzea edo, bestela, sorburu-hizkuntza ez-hegemoniko batetik. Itzultzaile batek erabaki dezake xede-hizkuntza hegemoniko batera itzultzea edo, bestela, xede-hizkuntza ez-hegemoniko batera.

Badira hizkuntzak zenbait naziotan direnak hegemoniko, edo nazio bakar batean¹. Hizkuntza hegemonikoen artean, badira mila milioi hiztun dituztenak, hala nola txinera, edo bi milioi hiztun dituztenak, hala nola mazedoniera.

Eta badira hizkuntzak, nazio batean hegemonikoak izan ez arren, hiri batean direnak hegemoniko, edo auzo batean, edo etxeko supazter zenbaitetan, ez baita gutxi.

¹ Hala nola [Witold Gombrowicz eta Czesław Miłosz](#)-en hizkuntza, zeinak gaur egun 50 milioi hiztun baititu –hizkuntza askoren inbidiarako–, eta datu horrek ezdeusten ditu, nire aburuz, Gombrowiczek Miłoszi polonieraren etorkizuneko biziraupenaz agertu zizkion kezka.

Badira hizkuntza ez-hegemonikoak egunean-egunean desagertzen ari direnak eta hizkuntza ez-hegemonikoak nolabaiteko ofizialtasun maila lortu eta gobernuek neurri handi edo txikiagoan babesten dituztenak.

Nik, madrildarra naizen aldetik, espainiera dut lehen hizkuntza edo ama-hizkuntza, zeina hegemonikoa baita jaioa naizen auzo, hiri eta estatuan eta ia kontinente baten erdian. Bide batez esanda, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria erdia duen Bilbo Handiko herritarren egoera linguistiko berean nago.

Txekoslovakia ohian bizi izandako bi urteez landa, beti bizi izan naiz Madrilen, eta hantxe ikasi nuen Filologia Hispanikoa. Unibertsitate-ikasketak hasi nituenetik bertatik interesatu zitzaidan itzulpengintza, eta azaldutako aurrekariak aintzat hartuta, logikoena izango zatekeen hizkuntza bat edo batzuk ondo ikasi eta hartatik edo haietatik neure lehen hizkuntzara egitea itzulpenak. “Xede-hizkuntzak itzultzailearen lehen hizkuntza behar du izan”, aholkatzen du itzulpengintzaren logikak². Itzultzaile gisa daukadan curriculumak, ordea, argi eta garbi erakusten du ez dudala arau hori errespetatu: itzuli ditudan zortzi liburuetatik, nire lehen hizkuntza kasu bakar batean baino ez da izan sorburu-hizkuntza, eta bi kasutan baino ez da izan xede-hizkuntza. Beste hizkuntza bat, euskara, zortzi itzulpenetatik seitako xede-hizkuntza izan da, eta bateko sorburu-hizkuntza. Beste hizkuntza bat (txekiera, alegia) zortzi itzulpenetatik zazpitako sorburu-hizkuntza izan da. Eta xede-hizkuntzat euskara izan duten sei itzulpenek txekiera izan dute sorburu-hizkuntzat, hau da, sei itzulpen horietarik bakar batean ere ez du parte hartu nire lehen hizkuntzak, ez xede-hizkuntza gisa, ez sorburu-hizkuntza gisa ere. Beraz, logika ez da neure kasuan bete, eta horrek *rara avis* bilakatzen nau, eta areago, ezbaian jartzen bide du nire itzulpenen kalitatea. Edonola ere, ez naiz itzultzaile bakarra bere lehen hizkuntza euskara ez izanagatik beti edo ia beti euskarara itzultzen duena: ni bezalako beste asko ere badaude, gehienak Euskal Herrian jaiotakoak, Euskal Herrian, bai, baina euskara nagusi edo hegemoniko ez den lekuetan. Hortaz, *rara avis* kontu hori ñabartu egin behar da, nahiz eta, egia esan, asko luzitzen duen.

² Logika horri men egin banio, agian hizkuntza hegemoniko batera itzultzeagatik gonbidatuko ninduten Donostia 2016ko *Karta Zuri* honetara parte hartzera. Baina zintzo jokatu behar dut zurekin, irakurle: idatzi gabeko arau hori bete izan banu, duda izpirik gabe, ez ninduten gonbidatuko.

Nire bizitzako mugarri nagusietako bi honako hauek izan dira: euskara ikastea erabakitzea eta, hainbat urte geroago, Madrilgo Universidad Complutenseko Euskal Filologia jakintza arloko irakasle titularra izatea. Bide luzea izan da, hamabost urte nituelarik hasi eta gaur egun ere badirauena. Itzulpengintza ere garrantzitsua izan da nire lan ibilbidean, baina, unibertsitateko lanarekin alderaturik, bigarren mailakoa. Bi jardueren oinarria hizkuntza gutxitu bat izan da, bere herrian bertan hegemonikoa ez dena, salbu eta zenbait herri txiki eta hainbat etxetan, eta XX. mendeko bigarren erdira arte homogeneoa ere izan ez dena. Koofiziala deneko autonomia erkidegoko 15 urtetik gorako biztanlerik erdiek ulertzen ez duten hizkuntza bat. Baina puri-purian dagoen hitz bat erabiliz, ni zorte oneko izan nintzen euskarari esker *merkatu-nitxo* bat aurkitu bainuen: Madrilen euskara irakasle, eta aisialdian txekieratiko euskaratzaile. Konkurrentziarik ez. Horregatik, neure burua adibide gisa jarrita, eta gaur egun puri-purian dagoen pragmatismoa ikurtzat harturik, urtero-urtero, Complutensen hizkuntza hegemonikoen filologietako ikasleei Linguistika irakasten diedanean, alamera ematen diet kontu berberarekin: hizkuntza hegemonikoak ikasteaz gain, hogeit hamar milioi hiztun baino gutxiago dituen hizkuntzaren bat ikastea aholkatzen diet, hau da, ingelesarekin edo espainierarekin alderaturik hutsaren hurrengo den (edo, hobeto esanda, ustez hutsaren hurrengoa den) hizkuntzaren bat. *“Estudiad, por ejemplo, búlgaro (lengua no hegemónica en Europa pero sí en Bulgaria), traducid a Gueorgui Gospodínov y quizás un día leáis en un periódico digital (es decir, para entonces, en un periódico) que le han dado el premio Nobel”*. Hitz horien bidez, bidenabar esanda, pentsatzen dudana eta niri ederki funtzionatu didana aholkatzeaz gain, ikasle horiek beren irakasle askorengandik jasotzen duten mezua indargabetzen saiatzen naiz: hizkuntza hegemonikoaren aldeko diskurtsoa, hizkuntza hegemonikoz osatutako planeta baten aldeko aldarri sutsua egiten duena (beti ere beren hizkuntzak segitzen badu haietako bat izaten).

Madrilen bizi eta euskara irakasteak edo euskarara itzultzeak badu alde txar-txar bat: beti ere azalpenak eman beharra. *¿Por qué? ¿Para qué?* Urteak joan, urteak etorri, erantzun egoki bat topatu dut holako okasioetarako: *“Porque*

*gracias al euskera puedo pagar la hipoteca*³. Hipotekaren azalpen hori jende guztiak ulertzen du.

Euskarara itzultzea⁴ ez da, niretzat, alferrikako lan bat, ezta gutxiagorik ere, eta baditut hainbat arrazoi horrela pentsatzeko. Besteak beste, honako hauek:

1: Euskarak hitzun gutxi dituelako uste hedatua gorabehera, ez dugu ahaztu behar Kike Amonarriz soziolinguistak behin baino gehiagotan gogorarazi diguna: Oitk 10erako eskala batean (munduko hizkuntza gutxien mintzatuenetatik gehien mintzatuenetara), euskara, gaur egun, 9an dagoela.

2: Gainera, koofiziala da autonomia erkidego batean eta erdi-koofiziala beste batean (munduko milaka hizkuntzak ez duten estatus harrogarria).

3: Atsegin handia ematen du espainierara itzuli gabeko literatura txekiarra euskaratzeak. Niretzat pribilegio handia izan zen Josef Škvorecký-ren ipuin bilduma bat itzultzea, txekieraz *Hořskej svět* izenez ezagutua eta euskaraz *Mundu mingotsa* izenez, zeina, esan bezala, ezin baita Cervantesen hizkuntzan irakurri. Bide batez esanda, harrigarria da nola Škvoreckýren eleberriak ingelesezko itzulpenetatik itzuli diren espainierara, eta ez txekierazko jatorrizko testutik.

4: Beti esan ahalko dut, harro-harro esan ere, Jaroslav Hašek-en Švejk soldadu onaren abenturak jatorrizko testutik Espainian egin eta argitaratutako lehenengo itzulpena neurea izan zela, euskarazkoa. Zenbait urte lehenago, 1980an, Alfonsina Janès-en espainierazko itzulpena plazaratu zuen Destino argitaletxeak, baina txekieratik beharrean zubi-hizkuntza batetik egina, alemanetik, alegia.

5: Diruaz hitz egitea itsusi samarra bada ere, nire azken itzulpenagatik eman zidaten portzentajea hogeitahi aldiz handiagoa izan da nire lankide Juan José Ortegak eta nire lankide ohi Martin Lexekek espainierara egindako hiru itzulpenengatik jaso zutena baino. Aitor dut, dena den, trilogia horretatik hiru milioi bederatziehun eta laurogeita hamar mila eta zortzietan ale gehiago saldu zirela Miroslav Holuben poemen nire itzulpen horretatik baino.

3 Esan gabe doa erantzun hori ematen dudana bakoitzean erantzun egiazkoa datorkidala burura, hau da, "gogoak ematen didalako".

4 *Itzuli* aditza aditz iragankortzat hartuta, jakina ("itzultzen dut", eta ez "itzultzen naiz").

6: Portzentajeen dagoen aldeaz gain⁵, kontuan hartu behar da nire izen-deiturak ageri direla, itzultzaile gisa, Holuben poemen antologia horren liburuaren azalean bertan, eta, oro har, euskal argitaletxeek hala jokatu ohi dutela itzultzaileekin, ikusezintasunetik erreskatatzen gaituztelarik. Martin eta Juanjo, ordea, ez ziren holako ohorearekin sarituak izan.

7: Euskal itzultzailea izateak eman didan atsegin handiena hauxe izan da: lagun min dudan beste euskal itzultzaile batekin elkarlanean aritu izana. Beti hartu dut itzulpengintza auzolan atsegintzat, eta auzolan horretan bidaide izan dudan adiskide hori Javi Cillero da, itzultzaile ona eta idazle bikaina.

8: Bestalde, hiru itzulpenetan zuzentzaileen laguntza izan dut, eta ez nolana hikoia. *Mundu mingotsa*-k asko zor dio Juan Garziari. *Izatearen arintasun jasanezina*-k asko zor dio Juan Luis Zabalari. Eta Beñat Sarasolak eta Mikel Elorzak zuzendu zuten Miroslav Holuben poemen itzulpena. Abagune hau baliatu nahi dut haiei neure esker ona adierazteko. Itzultzaileok zorretan gaude zuzentzaileekin. Haien izen-deiturek ere agertu beharko lukete liburuetan.

Baina euskarara itzultzeak, eta areago, txekieratik euskara itzultzeak, argiez gain, ilunak ere baditu. Hona hemen haietariko zenbait:

1: Euskara bederatzian dago 10eko eskalan hiztun kopuruari dagokionez munduko hizkuntzen artean, bai, baina, aldi berean, UNESCOk, gaur gaurkoz, hizkuntza “ahulen”, “zaugarrien” multzoan jartzen du. Hau da, egoera hobean dago “arriskuan” dauden hizkuntzak baino, “arrisku larrian” daudenak baino, “egoera kritikoan” daudenak baino, eta, zer esanik ez, “hilak” direnak baino, bai, baina... ez dago “salbu” dauden hizkuntzen multzoan.

2: Nire ustez, edozein erdaratako literatura euskarara itzultzeak ez du izan, salbuespenak salbuespen, euskal idazle gehienen sostengu eta aitortzarik, eta esan behar dut Karta Zuri honen antolatzaile den Anjel Lertxundi salbuespen militantea dela, ekitaldira hiru itzultzaile gonbidatuz argiro erakutsi duenez.⁶

5 Aitor dut aurreko puntua ironiaz idatzita zegoela.

6 Hau idazten ari naizelarik, irratia entzuten ari naiz, eta hara non Bernardo Atxagak, hitzok irakurri edo entzun balitu bezala, inbidiaz edo, honako hau esan duen, hitzez hitz: “Gure hizkuntzak gure utopia lortzea nahi badugu, giltza jakin batean jarri behar da arreta guztia, eta haren izena da itzulpena, itzulpenaren kalitateak erabakiko baitu gure hizkuntzaren egoera” (Faktoria Albistegia, Euskadi Irratia, 2016-12-5).

3: Euskarazko itzulpenen argitalpenak ale gutxikoak izaten dira, eta nire itzulpenak ez dira horren salbuespen izaten. Bai, ordea, horren adibide gorenak.

4: Urratu gabeko bideak urratzea (hala nola txekiar literatura euskaratzea) jarduera erakargarria da, baina, zenbait arlotan, nekagarri samarra. Ez dago txekiera-euskara hiztegirik. Ez dago, esan bezala, txekiar-euskal itzulpen-tradiziorik. Nire itzulpenak argitaratu aurretik zuzendu dituztenak birtuosoak dira euskara kontuetan, baina ez dakite txekieraz, eta, hortaz, ezin izan dute nire itzulpenen kalitatea epaitu, xede-testuarena baizik.

5: Ugari dira txekiera euskaratzeak dakartzan zailtasun linguistikoak. Txekiera hizkuntza indoeuroparra eta eslaviarra da; euskara, ordea, jakina denez, ez bata, ez bestea. Ezberdintasun genealogikoek ondorio tipologikoak ekar ditzakete, batez ere sintaktikoak. Beraz, txekieratik euskaratzeak dakartzan zailtasunak edozein hizkuntza indoeuoparretatik (eta, batez ere, edozein hizkuntza eslaviarretatik) euskarara itzultzeak dakartzanen neurri berekoak dira. Hemen, txekieraren eta euskararen arteko zenbait ezberdintasun aipatzera mugatuko naiz, txekieratik euskaratzea zaildu dezaketenak. Txekiera SAO motako hizkuntza da, hau da, subjektua-aditza-objektua hitz-hurrenkera izan ohi du; euskara, ordea, SOA motakoa omen da (subjektua-objektua-aditza). Txekierak, gainerako hizkuntza indoeuoparrek bezala, izenordain erlatiboak ditu, eta perpaus erlatiboa izen ardatzaren eskuinean ageri da, luzera handiko sintaxia ahalbidetuz; euskaraz, ordea, aditz erlatiboari erantsitako –N atzizkia erabili ohi da eta perpaus erlatiboa, japonieraz bezala, izen ardatzaren ezkerrean agertu ohi da, perpaus erlatiboaren luzera nabarmen murriztuz. Horregatik, euskal idazle klasikoek oso tresna erabilgarri bat baliatu zuten: galde-jatorridun erlatiboak (ZEIN izenordaina eta NON adberbioa), zeinei esker perpaus erlatiboa izen ardatzaren eskuinean ageri baita, sintaxiaren luzatzea ahalbidetuz, hizkuntza indoeuoparretan gertatzen den bezalaxe. Bada, baliabide hori erabat baztertu zuen euskal garbizaletasun edo garbizalekeria linguistikoak, gaur egungo idazle eta itzultzaileok ere saihestu ez ditugun aurreiritzia eta joera sortuz. Euskal garbizalekeria linguistikoak erabat arbuiaitu zituen (eta gaur egun ere arbuiaitzen ditu) beste hizkuntza batzuetatik mailegatutako baliabide linguistiko eraginkor ugari. Txekieratik euskaratzeak sortzen duen beste arazo bat txekiera idatziaren eta txekiera arruntaren artean

hizkuntza-maila guztietan (fonetikan, morfologian, sintaxian eta lexikoan) dagoen amildegia euskaraz aise adierazteko zailtasuna da. Zenbait txekiar idazlek, Bohumil Hrabal buru, txekiera arrunta ekartzen dute beren eleberri eta ipuinetara. Euskal idazleek, aldiz, ez ohi dute ahozko euskara elkarrizketetan ere erabili, gaur egun arte bederen⁷, eta, beraz, ez da samurra izaten txekiera arruntaren ezaugarri fonetiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoak euskarazko itzulpenean islatzea. Euskaraz nola adierazi “ona” esan nahi duten *dobrý* eta *dobrej* txekiar aldaeren arteko ñabardura? (-ý eta -ej kasu nominatibo singular maskulinoaren marka dira: lehenengoa txekiera idatzian, eta bigarrena txekiera arruntean). Eta, zailtasun-zerrendan gehiegi ez luzatzearen, hona hemen beste bi: alde batetik, hizkuntza eslaviarrek aditz burutuen eta aditz burutugabeen arteko banaketa erogarria egiten dute, hizkuntzok ikastea eta itzultzea biziki zailduz, eta, bestetik, hizkuntza eslaviarrek aurrizki-sistema txit aberatsa dute aditzaren esanahia ikaragarri ñabartzeko. Ondorioz, txekierazko aditz batek sarritan ez du beste hizkuntzetan baliokide lexikorik izaten eta, beraz, itzulpenetan hiru, lau edo bost hitzeko perifrasieta jo behar izaten da. Adibidez, *pít* ('edan') aditzetik honako aldaera hauek eratortzen dira aurrizkien bidez: [*vypít*](#); [*napít se*](#); [*napít*](#); [*dopít*](#); [*upít*](#); [*upíjet*](#); [*napájet*](#); [*opít*](#); [*opít se*](#); [*opíjet*](#); [*opíjet se*](#); [*zpít se*](#); [*popít*](#); [*popíjet*](#); [*podnapít se*](#); [*přepít se*](#); [*přípít*](#); [*propít*](#); [*vpít*](#); [*zapít*](#).

Pentsa liteke nik txekieratik euskaratzea inpunitate ariketa hutsa dela, zeren jatorrizko testuen egileek ezin baitute egiaztatu itzulpena jatorrizko testuarekiko “fidela” den. Idazle hilak euskaratu ditudanean, hala nola Jaroslav Hašek, inpunitate hori, jakina, erabatekoa izan da. Baina ez, ordea, Milan Kunderaren *Směšné lásky* (*Amodio barregarriak*) ipuin-liburua euskaratu nuenean. Ezagun da Kunderak bere obren itzulpenekiko duen obsesioa. Nire itzulpen horri dagokionez, Brnoko idazleak ez zuen euskaraz ikasten hasteko astirik izan (harentzat kalte), baina trikimailu bat erabili zuen: Erein argitaletxekoei galdetu zien zein den euskaraz emendiozko juntagailua. Erantzuna jasota, egiaztatu omen zuen txekieraz berak emendiozko juntagailua jarritako toki bakoitzean *eta hitza ageri ote zen itzulpenean*. Bidenabar esanda, gizalegez jokatu eta gogora

⁷ Ñabardura hau erantsi badut, honako arrazoi honengatik da: badirudi gaur egun euskara batuaren kontrako jarrera eta euskalkiak esparru guztietan erabiltzearen aldekoa gero eta hedatzenago ari direla euskaldunen artean.

dezagun Kunderak itzultzaileen lanaz behiala egin zuen hausnarketa bat, non itzultzaileok gure mamu ikusezin izaeratik erreskatatu baikintuen eta, aldi berean, bere ohiko harrokeria bazter utzita, *mea culpa* txalogarria aitortu:

*Hablo mal de los traductores y es injusto. Están mal pagados, mal apreciados, maltratados y se les pide cosas poco compatibles: estar en todo momento a la altura del autor y, al mismo tiempo, estarle totalmente subordinados. Terrible. Sin embargo, son ellos los que nos permiten vivir en el espacio supranacional de la literatura mundial, son ellos los modestos constructores de Europa, de Occidente.*⁸

Kunderari atsedean hartzen utzi eta nire diskurtso apalera nator bueltan. Nire ohiko sorburu-hizkuntzak, txekierak, edozein euskaltzaleren inbidia pizteko moduko hiztun kopurua du: hamabi milioi. Eta, gainera, estatu batean hizkuntza ofiziala izateaz gain, bertako hizkuntza hegemonikoa ere bada. Txekieraren etorkizunak, epe motz eta ertainean bederen, ziurtatuta dirudi. Idazle txekiarrek, normalean, txekieraz idazten dute. Eta horren salbuespenik baldin bada, salbuespen gehienak beste herri batera (normalean, nazioarte mailako hizkuntza hegemonikoa duen herri batera) 1968 urtearen bueltan emigratutako idazleak dira. Haietako zenbaitek, une jakin batetik aurrera, literatura lanak tarteka edo erabat frantsesez idaztea erabaki zuten. Hori da, esaterako, Frantziara alde egindako Věra Linhartová-ren kasua, edo Kunderarena. Kunderak, Frantzian bizitzen hasi eta lehenengo urteetan txekieraz idazten segitu zuen, baina une jakin batetik aurrera, bere lehen hizkuntza albora utzi eta soilik frantsesez idazteko hautua egin zuen. Eta hori gutxi balitz bezala, ez dugu ahaztu behar txekieraz idatzi zituen bere eleberrien itzulpenetarako baimena ematen duela sorburu-hizkuntzat bai txekiera, bai frantsesa hartzeko. Bestela esanda, Kunderarentzat, frantsesezko itzulpenak jatorrizko bertsioaren estatusa partekatzen du txekierazko testuarekin. Beraz, ez da harritzekoa Eusko Jaurlaritzak sustatutako *Literatura Unibertsala* egitasmoaren 2007ko deialdian Kunderaren *Nesnesitelná lehkost bytí* ("Izatearen arintasun 8 "27 palabras en la vida de un escritor", *El País*, *Domingo*, 17. or., 1985eko abenduak 15.

jasanezina”) eleberria zerrendan agertu zenean, frantsesezko izenburuarekin agertzea, Kunderak liburu hori frantsesez idatzi balu bezala. Gogoratu behar da frantsesezko itzulpena 1984an argitaratu zela, eta txekierazko jatorrizko testua handik urtebetera, Kanadan, Txekoslovakian debekaturik baitzegoen. Bada, nik sorburu-hizkuntzat txekiera ere erabiltzeko aukera aldarrikatu nuen eta, oniritzia jasota, lehiaketan parte hartu ahal izan nuen eta baita esleipena lortu ere. Nire itzulpen hori 2009an heldu zen euskal liburu-dendetara (edo, behintzat, zenbait liburu-dendatar), inolako harrabotsik gabe heldu ere, eleberri hartatik hizkuntza hegemoniko guztietara egindako itzulpenek mundu osoan sekulako arrakasta lortu eta hogeita bost urtera.

Linhartová edo Kunderarena baino kasu deigarriagoa izan zen Václav Jamek-ena: Pragan bizi izan arren, 1989an *Traité des courtes merveilles* eleberria argitaratu zuen. Berak zenbait literatura lan txekieraz argitaratu ditu eta beste batzuk frantsesez.

Bere aldetik, Monika Zgustová-k espainieraz idazteko hautua egin zuen, XX. mendeko 80ko hamarkadan Bartzelonan bizitzen jarri ondoren. Zgustovák eleberriak espainieraz idazteaz gain, txekiar literatura espainierara eta katalanera itzuli izan du.

Linhartová, Kundera eta Zgustováren beste muturrean badira zenbait idazle txekiar, hizkuntza hegemonikoa edo oso hegemonikoa duen herri batera emigratu arren txekieraz soilik idazten segitzea erabaki zutenak. Lehen aipatutako Josef Škvorecký hura izan zen horren adibide garbia: Torontora 1969an alde egin eta han bizi izan zen hil arte, 2012an. Škvoreckýk inoiz ez zion txekieraz idazteari utzi, ez zen ingelesera pasa, eta, hori gutxi balitz bezala, 1971an, bere emazte [Zdena Salivarová](#)-rekin batera, oso izen esanguratsuko argitaletxe bat sortu zuen, Sixty-Eight Publisher, zeinean jatorrizko bertsoan argitaratu baitziren Txekoslovakian debekatutako txekierazko hainbat literatura lan.

Barka, irakurle, gehiegi luzatu banaiz. Buka dezadan behingoz. Nire lan-hizkuntzak, euskarak, agian ez dauka etorkizun ziurra, auskalo non egongo den ehun urte barru, zein hizkuntza-multzotan kokatuko duen UNESCOk (baldin eta ordurako UNESCO existitzen bada), baina horrek ez dit eragozten hasierako zaletasun bertsuarekin lan egiten segitzea. Beti lanturuka ibiltzeak ez

garamatza inora, ez bada adore faltara eta ezer ez egitera. Ez dakit zein den nire itzulpenek nire irakurle bakanengan sortzen duten efektua. Badakit, ordea, zein efektu eragiten didaten niri, eta hori aski zait, oraingoz behintzat. Bestalde, une honetan burura datozkit espainiera bezalako hizkuntza hegemoniko batera arrakasta eskasarekin itzultzen dutenak. Hizkuntza hegemoniko batera literatura itzultzeak ez du arrakasta bermatzen. 500 milioi irakurlez osatutako merkatu potentzial batera iritsi ahal izatea ilusio huts gerta liteke, errealitate krudelarekin talka egiten duen ilusio huts, baldin eta ez baduzu Martin Lixel edo Juan José Ortega izateko eta Stig Larssonen *Milleniun* trilogia itzultzeko zortea. Hizkuntza hegemonikoetara literatura itzulpenak egiten dituzten gehien-gehienek (denek ez esatearren, itzultzaile sonatuenak barne) beste jarduera bat dute benetako ogibide. Batzuk eta besteak ez gara, beraz, hain ezberdinak.

Hizkuntza gutxitu eta ahul bat, euskara alegia, irakasle eta itzultzaile gisa nire lan-hizkuntza izanari esker, Anjel Lertxundik antolatutako *Karta Zuri* honetan hartu ahal izan dut parte, atsegin handiz. Mahai berean Anjel Lertxundi, Miguel Sáenz eta Raul Zelik-en ondoan esertzea ohore handia izan da azken mamu gorri zoriontsu naizen honentzat. Hirurek, ahoa irekitzen duten bakoitzean, irakasten digute jakituria eta apaltasuna eskutik hartuta joan daitezkeela. Salbuespen militanteak, nire irudiko.